**ERANSKINA - 8.2. DIRULAGUNTZA LERROA: ERRENTERIAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA ETA SEXU ETA GENERO ANIZTASUNA SUSTATZEN DUTEN PROIEKTUAK 2025. OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**1.- Dirulaguntzaren xedea**

Lerro honen xedea da Berdintasun Departamentuaren helburuekin koherenteak diren jarduera-proiektuak egiteko diru-laguntzak ematea, hau da, emakumeen eta gizonen berdintasuna, sexu- eta genero-aniztasuna eta desberdintasun horiei eusten dieten gizarte-ereduen eraldaketa bultzatzen dituzten eta asoziazionismoa eta emakumeen eta LGTBI+ pertsonen parte-hartzea sustatzen duten jarduera-proiektuak egiteko, bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalaren eremu guztietan.

**2.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

2.1. Diru-laguntza jaso ahal izango dute honako jarduera hauek egitera bideratutako proiektuek:

a) Esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatzen duten jarduerak.

b) Emakumeen eta LGTBI+ komunitatearen bizi-baldintzak hobetzen laguntzen duten jarduerak, batez ere bereizkeria anitzeko egoerak jasaten dituztenenak.

c) Emakumeen eta LGTBI+ pertsonen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa bultzatzeko jarduerak.

d) Emakumeen eta LGTBI+ pertsonen eskubideak sustatzeko jarduerak.

**ANEXO - LINEA DE SUBVENCION 8.2.: PROYECTOS QUE PROMUEVAN LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES Y LA DIVERSIDAD SEXUAL Y DE GÉNERO EN ERRENTERIA 2025. BASES ESPECÍFICAS**

**1.- Objeto de la subvención**

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para la realización de proyectos de actividades que sean coherentes con los objetivos del Departamento de Igualdad, esto es, que favorezcan la igualdad de mujeres y hombres, la diversidad sexual y de género y la transformación de los modelos sociales que sostienen estas desigualdad y que fomenten el asociacionismo y la participación de las mujeres y las personas LGTBI+ en todos los ámbitos de la vida política, económica, social y cultural de Errenteria.

**2.- Actividades subvencionables**

2.1. Serán objeto de subvención los proyectos que estén dirigidos a la realización de las siguientes actividades:

a) Actividades que promuevan la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos.

b) Actividades que contribuyan a mejorar las condiciones de vida de las mujeres y de la comunidad LGTBI+, especialmente de aquellas que sufran situaciones de discriminación múltiple.

c) Actividades de impulso del empoderamiento personal y colectivo de las mujeres y de las personas LGTBI+.

d) Actividades destinadas a la promoción de los derechos de las mujeres y de las personas LGTBI+.

e) Emakumeek edo LGTBI+ pertsonek elkarte-mugimenduetan duten parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko jarduerak, bai eta emakume-elkarteak eta mugimendu feminista eta LGTBI+ mugimendua indartzekoak ere.

e) Actividades destinadas a la promoción de la participación sociopolítica de las mujeres o las personas LGTBI+ en los movimientos asociativos, así como al fortalecimiento de las asociaciones de mujeres y del movimiento feminista y del movimiento LGTBI+.

f) Emakumeen eta emakume-taldeen artean sareak sortzeko jarduerak, bai emakumeen eta udalerriko taldeen artean, bai udalerrikoak ez diren emakumeen eta taldeen artean.

f) Actividades para la creación de redes entre mujeres y grupos de mujeres, bien entre mujeres y grupos del municipio, bien entre mujeres y grupos que no sean del municipio.

g) Emakumeen eta LGTBI+ pertsonen memoria historikoa eta pentsamendu feminista berreskuratzeko jarduerak.

g) Actividades destinadas a la recuperación de la memoria histórica de las mujeres, de las personas LGTBI+ y del pensamiento feminista.

h) Hainbat arlotako kolektibo, talde, elkarte eta eragileentzako berdintasuneko prestakuntza-jarduerak.

h) Actividades de formación en igualdad para colectivos, grupos, asociaciones y agentes de diversos ámbitos.

i) Genero-rol eta -estereotipoekin eta horiek diskriminazioan eta desberdintasunean duten eraginarekin lotutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak, bai eta generoaren ikuskera tradizionala hausten duten rolak eta estereotipoak formulatzea ere.

i) Actividades de sensibilización y formación relacionadas con los roles y estereotipos de género y su efecto en la discriminación y la desigualdad, así como la formulación de roles y estereotipos que rompan con la concepción tradicional de género.

j) Indarkeria matxistaz sentsibilizatzeko eta prebenitzeko jarduerak.

j) Actividades para la sensibilización y prevención de la violencia machista.

2.2. Deialditik kanpo daude:

2.2. No serán objeto de subvención las siguientes actividades:

a) Edozein kontzeptuetan inbertitzeko jarduerak edo irabazi-asmoa duten ekintzak edo jarduerak

a) Actividades dirigidas a la inversión en cualquier concepto o aquellas acciones o actividades que tengan ánimo de lucro.

b) Elkartekideentzat bakarrik diren proiektuak.

b) Proyectos que se desarrollen de forma exclusiva para las personas asociadas.

c) Edukia eta helburuak beste udal deialdi batzuen ondorio dituzten jarduerak.

c) Actividades cuyo contenido y objetivos sean consecuencia de otras convocatorias municipales.

d) Aisialdiko jarduerak besterik ez diren proiektuak.

d) Proyectos que constituyan actividades de ocio exclusivamente.

e) Genero-ikuspegia kontuan hartzen ez duten proiektuak.

e) Proyectos que no incorporen la perspectiva de género.

**3.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua.**

**3.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.**

Aurrekontu exekuzio udal arauan oinarrituta, deialdi hau aldez aurretik izapidetzen ari da; hau da, ebazpena eman eta gastua exekutatu aurreko aurrekontu-ekitaldi batean.

Sobre la base de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria, esta convocatoria se está tramitando con carácter previo, es decir, en un ejercicio presupuestario previo a la resolución y ejecución del gasto.

Zenbatekoa 2025eko aurrekontuko 1330.481.03.231.50 partidaren kontura izango da:

El importe será con cargo a la partida 1330.481.03.231.50 del presupuesto de 2025:

2025 1330.481.03.231.50 Deialdia: Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta sexu eta genero aniztasuna sustatzea

2025 1330.481.03.231.50 Convocatoria: Promoción de la igualdad de mujeres y hombres y de la diversidad sexual y de género

Dirulaguntza lerro honetarako dagoen aurrekontua 10.000 eurokoa da.

El presupuesto disponible para esta línea de subvención es de 10.000 euros.

Dagokion kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Si posteriormente fuesen ampliadas en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria.

Gehieneko zenbateko hori zenbatetsia da, dirulaguntza ebazteko unean kreditu egokia eta nahikoa egotean baldintzapean baitago. Kreditu hori deialdi hau onartu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian izango da.

Esta cuantía total máxima tiene carácter estimado, puesto que está condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de resolución de la concesión, que tendrá lugar en el ejercicio presupuestario siguiente al de la aprobación de la convocatoria.

2025ko aurrekontuan onartutako kreditua txikiagoa bada, ebazpen-proposamenak behera egin beharko du dauden kredituetara egokitze aldera.

En caso de que el crédito aprobado en el presupuesto de 2025 fuera inferior, deberá ajustarse a la baja la propuesta de resolución a los créditos existentes.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak ez du inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin batuta ere

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Ezingo da bestelako gastuak edota hainbat gastu kontzeptu pean inongo gasturik aurkeztu. Hauek hain zuzen:

No podrá presentarse gasto alguno por otros gastos o por diversos conceptos de gasto. En concreto:

A- Elkarteak egin beharreko oinarrizko lanak egiten dituzten profesionalen soldata gastuak ez dira diruz lagunduko.

A- No serán objeto de subvención los gastos salariales de las profesionales que realicen las actividades básicas a realizar por la asociación.

B- Ez dira onartuko, lokalaren mantenuarekin zer ikusi zuzena duten gastuak: alokairua, argindarra, ura...

B- No se admitirán gastos directamente relacionados con el mantenimiento del local: alquiler, electricidad, agua...

C- Diruz ez laguntzea, opor egonaldiak, otorduak, luntxak eta antzekoak.

C- No subvencionar, estancias vacacionales, comidas, lunch y similares.

**4.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.**

**4.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.**

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute hurrengoko baldintzak bete eta hurrengoko konpromisoa hartzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak:

Podrán solicitar subvención aquellas asociaciones sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos y asuman los compromisos siguientes:

- Emakumeen elkarteak, mugimendu feministako edo LGTBI+ mugimenduko eragileak.

- Las asociaciones de mujeres u organizaciones del movimiento feminista o movimiento LGTBI+.

- Elkarte mistoak, irabazi-asmorik gabekoak, baldin eta berdintasun-organo espezifiko bat edo emakumeen idazkaria badute, edo, bestela, haien helburuen artean badago emakumeen partaidetza soziopolitikoa edo kulturala sustatzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna edo sexu- eta genero-aniztasuna sustatzeko proiektuak edo jarduerak egitea.

- Las asociaciones mixtas, sin ánimo de lucro, que o bien cuenten con un órgano específico de igualdad o secretaria de mujeres, o bien entre sus objetivos exista la promoción de la participación sociopolítica o cultural de las mujeres y la realización de proyectos o actividades de promoción de la igualdad entre mujeres y hombres o de la diversidad sexual y de género.

- Elkartearen esku hartzea Errenterian garatzea.

- El ámbito de actuación tiene que ser el municipio de Errenteria.

- Udaleko zein Eusko Jaurlaritzako Elkarteen erregistroan erregistratuta egotea.

- Estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones, o en su defecto, en el Registro General del Gobierno Vasco.

- Berdintasun departamentuaren helburuekin bat datozen jarduera proeiktuak burutzea.

- Desarrollar proyectos de actuación acordes con los objetivos del Departamento de Igualdad.

Ezin izango da dirulaguntza hauen onuradun izan, ERRENTERIAKO UDALAK 2025 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN laugarren oinarrian adierazitakoa.

No podrán participar en este programa las entidades que no cumplan los requisitos que constan en la base cuarta de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2025.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Documentación a presentar con la solicitud:

Eskatzaileek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute, Errenteriako Udalak 2025. urtean diru-laguntzak emateko oinarri orokorretako seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako agiri hauek:

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, de acuerdo con lo establecido en la base Sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2025, la siguiente documentación:

- Eskaria egiten duen erakundeak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

- Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.

- Diruz laguntzea nahi den proiektoa, jarduera edo programa, erakunde eskatzailearen organo eskudunak onartua.

- Proyecto, actividad o programa para el que se solicita la subvención, aprobado por el órgano competente de la entidad solicitante.

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu:

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberán aportar los documentos acreditativos exigidos en la convocatoria:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

- Dirección General de la Policía – Consulta y verificación de datos de identidad.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

**5.- Eskabideak aurkezteko epea.**

**5.- Plazo de presentación de solicitudes.**

Dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da 2025eko otsailaren 15ean.

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para programas de Mujeres: encuentros y participación social estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 15 de febrero de 2025.

Proiektua aurkeztu beharko da horretarako sorturiko inprimaki-eredua beteaz.

El proyecto deberá presentarse cumplimentando el impreso de solicitud creado al efecto.

Epe horretan zehar Berdintasun departamentura jo daiteke informazio eske (943449576 edo berdintasuna@errenteria.eus)

Durante ese plazo se podrá solicitar información dirigiéndose al departamento de Igualdad (943449576 o berdintasuna@errenteria.eus)

**6.- Balorazio batzordea**

**6.- Comisión de Valoración**

Dirulaguntza lerro honetako Balorazio batzordean, ERRENTERIAKO UDALAK 2025 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN Zortzigarren oinarrian zehaztutako pertsonez gain, Kultur Aniztasuna, Garapenerako Lankidetza eta Giza Eskubideak departamentuko arduradun teknikoa ere kide izango da.

La Comisión de valoración de esta línea de subvención estará compuesta, además de por las personas señaladas en la Base Octava de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2025, por la persona técnica responsable del departamento de Diversidad Cultural, Cooperación al Desarrollo y Derechos Humanos.

**7.- Eskabideak baloratzeko irizpideak**

**7.- Criterios de valoración de las solicitudes.**

Eskabideak baloratzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

| **ELKARTEAREN EZAUGARRIAK** | **Gehienez 10 puntu** |
|---|---|
| **Elkarte-mota.** Tipo de asociación | **Gehienez 5 puntu** |
| **Emakume elkarte batek aurkeztutako proiektua.** Proyecto presentado por una asociación de mujeres. | 5 |

| | |
|---|---|
| **Emakume elkartea ez den elkarte batek aurkeztutako proiektua.** Proyecto presentado por una asociación que no es de mujeres. | 0 |
| **Elkartearen kokapena ·** Localización de la asociación | **Gehienez 5 puntu** |
| **Errenterian kokaturiko elkarte batek aurkeztutako proiektua.** Proyecto presentado por una asociación radicada en Errenteria | 5 |
| **Errenterian kokatzen ez den elkarte batek aurkeztutako proiektua.** Proyecto presentado por una asociación que no es de Errenteria | 0 |
| **PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK**<br>CARACTRÍSTICAS DEL PROYECTO | **GEHIENEZ 50 PUNTU** |
| **Proiketuaren oinarriak eta deskribapena, erabiliko den metodología, aurrikusitako jardueren deskribapena eta espero diren emaitzak, zehatz mehatz definitzea.** Definición detallada de las bases y descripción del proyecto, metodología a utilizar, descripción de las actividades previstas y resultados esperados. | **Gehienez 10 puntu** |
| **Tokiko errealitatera egokitzea.** Adecuación a la realidad local. | **Gehienez 5 puntu** |
| **Tokiko errealitatera egokitzen da.** Se adapta a la realidad local. | 5 |
| **Ez da tokiko errealitatera egokitzen.**No se adapta a la realidad local. | 0 |
| **Genero ikuspegia txertatzea (justifikazioan, helburuetan, jardueretan, metodologian eta ebaluazioan).** Integración de la perspectiva de género (en la justificación, objetivos, actividades, metodología y evaluación). | **Gehienez 10 puntu** |
| **Atal guztietan.** En todas las secciones | 10 |
| **Atal guztien erdian baino gehiagotan.** En más de la mitad de todos los apartados. | 8 |
| **Atalen erdian.** En la mitad de los apartados. | 5 |
| **Atal guztien erdian baino gutxiagotan.** En menos de la mitad de todos los apartados. | 3 |
| **Ez da txertatzen.** No se integra. | 0 |
| **Proiektuaren kudeaketan, berdintasunean eta sexu ete genero aniztasunean formakuntza edo esperientzia eta ibilbidea dituzten pertsonak atxikitzea.** Contar en la gestión del proyecto con personas con formación o experiencia y trayectoria en igualdad y diversidad sexual y de género. | **Gehienez 5 puntu** |

| | |
|---|---|
| **3 ikastaro baino gehiago edo/eta 3 urte baino gehiagoko.** Más de 3 cursos y/o más de 3 años de experiencia. | 5 |
| **2 ikastaro baino gehiago edo/eta 2 urte baino gehiagoko esperientzia .** Más de 2 cursos y/o más de 2 años de experiencia. | 3 |
| **1 ikastaro baino gehiago edo/eta 1 urte baino gehiagoko esperientzia .** Más de 1 curso y/o más de 1 año de experiencia. | 1 |
| **Ikastarorik edo esperientzarik ez.** Sin cursos o experiencia. | 0 |
| **Emakumeen eta LGTBI+ pertsonen jabekuntza helburua duten proiektuak.** Proyectos cuyo objetivo es el empoderamiento de las mujeres y de las personas LGTBI+. | **Gehienez 5 puntu** |
| **Jabekuntzarako estrategiak zehaztuta daude.** Están definidas las estrategias que buscan el empoderamiento. | 5 |
| **Ez dauka jabekuntza xede duen estrategiarik.** No tiene estrategia para el empoderamiento. | 0 |
| **Emakume eta LGTBI+ gazteen parte-hartzea eta sentsibilizazioa.** Participación y sensibilización de mujeres jóvenes y jóvenes LGTBI+. | **Gehienez 5 puntu** |
| **Proiektuak barne hartzen du emakume gazteen parte-hartzea eta sentsibilizazioa.** El proyecto incluye la participación y sensibilización de las mujeres jóvenes. | 5 |
| **Proiektuak ez du barne hartzen neska gazteen parte-hartzea eta sentsibilizazioa.** El proyecto no incluye la participación y sensibilización de los jóvenes. | 0 |
| **Intersekzionalitate-ikuspegia kontutan hartzea. Intersekzionalitatea kontuan hartzen duen, honako dimentsio hauek txertatuz: adina, jatorria, sexu- eta genero-identitatea, aniztasun funtzionala, pobrezia edo gizarte-bazterketa.** Tener en cuenta la perspectiva de interseccionalidad. Tiene en cuenta la interseccionalidad, integrando las dimensiones de edad, origen, identidad sexual y de género, diversidad funcional, pobreza o exclusión social | **Gehienez 5 puntu** |
| **Proiektuak barne hartzen du intersekzionalite-ikuspegia 3 dimentsio baino gehiago txertatuz.** El proyecto incluye el enfoque de interseccionalidad incorporando más de 3 dimensiones. | 5 |
| **Proiektuak barne hartzen du intersekzionalite-ikuspegia 2 dimentsio txertatuz.** El proyecto incluye el enfoque de interseccionalidad incorporando 2 dimensiones. | 3 |
| **Proiektuak barne hartzen du intersekzionalite-ikuspegia dimentsio 1 txertatuz**. El proyecto incluye el enfoque de interseccionalidad incorporando 1 dimensión. | 1,5 |
| Ez da dimentsiorik txertatu. | 0 |

| | |
|---|---|
| **Originaltasuna eta alderdi berritzaileak.** Originalidad y aspectos innovadores. | **Gehienez 5 puntu** |
| **PARTE-HARTZEA** PARTICIPACIÓN | **30** |
| **Proiektuan parte hartzen duten pertsonen familia, lana eta norberaren bizitza zaintza lanekin eta erantzunkizunarekin uztartzeko neurriak.** Medidas para conciliar la vida familiar, laboral y personal de las personas participantes en el proyecto con el cuidado y la responsabilidad. | **5** |
| **Ordutegia proiektuan parte hartzen dutenen beharretara egokitzen da.** El horario se adapta a las necesidades de las participantes en el proyecto. | 1 |
| **Haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen da.** Servicio de guardería. | 1 |
| **Mendekotasuna duten pertsonentzat zaintza zerbitzua eskaintzen da.** Se ofrece servicio de cuidados para personas dependientes. | 1 |
| **Beste neurriren bat aurreikusten da.** Se prevé otra medida. | 1 |
| **Ez dago neurririk aurreikusita.** No hay medidas previstas. | 0 |
| **Sareak sortzea eta esperientziak trukatzea.** Creación de redes e intercambio de experiencias. | **5** |
| **Elkarteen arteko mundua indartzea eta horien arteko sareak sortzea sustatzen du proiektuak.** El proyecto promueve el fortalecimiento del mundo asociativo y la creación de redes entre las mismas. | 2,5 |
| **Elkar ezagutzeko eta esperientziak, pertsonak eta baliabideak trukatzeko harremanak sustatzen edo indartzen du proiektuak.** El proyecto fomenta o refuerza las relaciones para conocerse e intercambiar experiencias, personas y recursos. | 2,5 |
| **Proiektuak ez du aurreko bi puntuetako bat ere sustatzen.** El proyecto no promueve ninguno de los dos puntos anteriores. | 0 |
| **Auzoetan jarduerak antolatzea.** Organización de actividades en los barrios. | **5** |
| **Proiektuko jarduerak 2 auzotan edo gehiagotan egitea aurreikusten da.** Se prevé la realización de las actividades del proyecto en 2 o más barrios. | 5 |
| **Proiektuko jarduerak auzo batean egitea aurreikusten da.** Se prevé que las actividades del proyecto se desarrollen en un barrio. | 2,5 |
| **Berdintasun politikekin zerikusia duten Udalarekin harremanetan jartzeko espazioetan parte hartzea.** Participación en espacios de contacto con el Ayuntamiento relacionados con políticas de igualdad. | **Gehienez 10 puntu** |

| | |
|---|---|
| **Berdintasunereko Aholku kontseiluan parte hartzea.** Participación en el Consejo Asesor de Igualdad. | 5 |
| **Emakumeen Etxeko Batzarrean parte hartzea.** Participación en la Asamblea de la Casa de las Mujeres. | 5 |
| **LGTBI+ poliken Aholku Kontseiluan parte hartzea.** Participación en el Consejo Asesor de políticas LGTBI+ | 5 |
| **HIZKUNTZA** IDIOMA | **GEHIENEZ 5 PUNTU** |
| **Euskararen erabilera proiektua edo jarduera garatzeko orduan.** El uso del euskera en el desarrollo del proyecto o actividad. | |
| **Eskabidea eta proiektuaren dokumentua eskaraz egitea.** Solicitud y documento del proyecto en eukara. | 1,5 |
| **Jarduera euskaraz egingo da.** La actividad se realizará en euskera. | 2 |
| **Banatutako materialek eta komunikazio-euskarriek euskara lehenesten dute.** Los materiales distribuidos y los soportes de comunicación priorizan el euskera. | 1,5 |

Proiektua diruz laguntzeko beharrezkoa izango da gutxienez 50 puntu lortzea.

Puntu bakoitzaren balioa eragiketa hau eginda aterako da: aurrekontu osoa zati onartutako proiektu edota jarduera guztiei emandako puntuen batuketa. Hala, puntu bakoitzaren balioa proiektu edo jarduera bakoitzari emandako puntu kopuruaz biderkatuta aterako da dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

Para que el proyecto sea subvencionado tendrá que obtener al menos 50 puntos.

El total del presupuesto dividido entre la suma de puntos adjudicados a todos los proyectos o actividades subvencionables, fijará el valor de cada punto. El valor equivalente a un punto, multiplicado por los puntos con los que se ha valorado cada proyecto o actividad, determinará la cuantía de la subvención otorgada.

**8.- Kopurua zehazteko**

Jarritako irizpideak bete ondoren, aurrekontuan dagoen diru guztia ez bada eman eta elkarteek eskatutako kopurua ez bada bete soberan dagoena, lortutako puntuazioaren arabera banatuko da.

**8.- Asignación de la cuantía**

Si una vez aplicados los criterios establecidos, no se hubiera asignado a las Asociaciones el total del presupuesto disponible, y no se hubiera cubierto el total de lo solicitado por la Asociaciones, el sobrante se repartirá en base a la puntuación obtenida en función del contenido de la propuesta.

Aurrekoa eginda, oraindik udal aurrekontua bere osotasunean ez bada esleitzen, berriro eragiketa berdina egingo da behar den aldi guztietan, aurrekontua bere osotasunean esleitu arte.

Si tras dichas operaciones aún no se agota el presupuesto asignado a esta línea de subvención, se procederá a aplicar la misma operación cuantas veces sea necesaria hasta agotar el presupuesto total.

**9.- Dirulaguntza ebazpena**

**9.- Resolución de la subvención**

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio.

La resolución pone fin a la vía administrativa.

Ebazpena udal iragarki oholean eta udal web gunean argitaratuko da. Hein berean banan-banan jakinaraziko zaie dirulaguntza ukatzen zaien pertsona edo entitate eskatzaileei.

La resolución se publicará en el tablón de anuncios municipal y en la página web municipal. Igualmente se notificará individualmente a las personas o entidades solicitantes a las que se deniegue la subvención.

**10.- Dirulaguntza ordainketa eta ordainketa aurreratuak.**

**10.- Abono de la subvención y pagos anticipados.**

Dirulaguntzaren diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

Los importes de la subvención serán abonados de la siguiente forma:

%80 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

80% tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

%20 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

20% tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

**11.- Dirulaguntzaren justifikazioa.**

**11.- Justificación de la subvención.**

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hori aurkezteko epe muga 2025eko abenduaren 31a izango da.

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 31 de diciembre de 2025.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, ERRENTERIAKO UDALAK 2025 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN hemezortzigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

Dirulaguntzaren eskabide ereduarekin batera doan dokumentazioa bete beharko da.

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da ERRENTERIAKO UDALAK 2025 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoctava de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2025:

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

Deberá cumplimentarse la documentación que se adjunta al modelo de solicitud de subvención.

**Nota importante**: esta convocatoria deviene de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2025. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.